



Aurkezten du:



Toyshop
Panpinen mundu magikoa

Guida didaktikoa

Aurkezpena

Ametsak

Kontuz desiratzen duzunarekin.... kasualitatez egia bihur liteke eta.

Hau da “Toyshop, panpinen mundu magikoa” proiektuaren planteamendua, nabarmenaraztea, benetako bihurtzea jostailuei baino ez dagokien irudimen eta fantasiatzko mundua.

Misterioaren beloa altxatu eta inoiz sartu ez garen lurralde batean ezkutaturiko magia erakustea bezala: panpinen planeta. Nafarroako Ganbera-Operak sorturiko familiarteko opera proiektuak “*Toyshop, panpinen mundu magikoa*”ren atzean dagoen fantasia erakutsi nahi du. Desira eta amets guztiak ilusioaren eskura. Tailer dibertigarri bat; bertan, panpinak bizidun bihurtzen dira eta magia da dibertsioaren eguneroko errezeta. Kolore, misterio eta bizitzaz beteriko opera bat, haurren desira guztiak amets bihurtuta aurkitzeko. Arao eta konjuruen erresuma, fantasia eta magiazkoa, maitasunaren makilatxo magikoarekin mugitzen dena.

Maitasuna

O Pauline, egin kontu benetako haurren artean badaudela inoiz ez dituztenak beren gurasoak zorientsu egiten, “maite zaituztegu” besterik ez esanez.

Esaldi honek, operako protagonistetariko baten ahoan, Paulen ahoan, hain zuzen, garbi erakusten digu zer nolako garrantzia duen maitasunak jostailuen planeta fantastiko honetan. Maitasunak mugitzen du bizitza eta ordeztzen du beltza zuriarekin. Hala dio Aldo Fiasco azti maltzurak, jostailu-egile zintzoari aurre egiten dionean.

Fantasia

Helduei jostailuekin jolastea haur txikiei bezala gustatzen zaie.

Ikuskizunak fantasia eta galdutako haurtzaroa goretsi nahi ditu, eta arreta-ukitu bat eman oinak lurrean ez diezaioGUN amesteari utzi. Operak laguntasuna gorai patzen du, eta, aldi berean, eszenaraturiko magia ariketa betea da, hainbat truku egin behar izanda panpinen bizilekua den ilusio giro hori lortzeko.

Magia

Edozer gerta liteke, maitasuna magikoa delako. Agertokiak istorioa garatzeko bi gune aurkezten ditu. Jostilu-egilearen tailerra eta panpinen mundu fantastiko eta magikoa, magia bidez baino ez dena berregiten, eta gizakiek ezin dutena ezagutu.

Azkenik, “*Toyshop, panpinen mundu magikoa*” operak askatasuna gorai patu nahi du.

Askatasuna

Eta zer egin dugu gure bizitzan? Ezer ez! Paul, kanpora joan eta esperientzia zirraragarriren bat bizi nahi dut

Jostailuek adierazitako baina gizakiek baieztatutako beharra, gauzei zentzua emango dieten esperientziak bizitzeko, eta gurea bezain errealitate aberatsak badaudela eta errespetatu egin behar ditugula ikasteko. Aniztasunak egiten gaitu gizaki.

Argumentua

Jostailu eta txotxongilo-egile agurea bere munduan bizi da gizakiengandik urrun. Panpinek baino ez dute betetzen bere bizitza, eta bereziki bik, Paul eta Paulinek, seme-alabatzat dituen, bere maitasun osoa emanda euri.

Bere panpina kuttunen urtebetetze bezperan, Aldo Fiasco deituriko azti boteretsu bat aurkeztuko zaio tailerrean; Paul eta Pauline berarekin eraman nahi ditu haien dantzatzeko aparteko dohaina dela eta. Jostailu-egileak ezetz esango dio eta Fiascok, orduan, lapurtuko dituela mehatxu egingo dio.

Gauetz, denak lo daudenean, Aldo Fiasco tailerrera itzuliko da bere mehatxua betetzeko prest. Une horretan, panpinen mundu magikoa bizidun bihurtu eta jostailu-egilea ohartaraztea lortuko dute Fiasco maltzurak ez dezan bere plana burutu.

Aztiak Paul eta Pauline txikituko dituela esaten dionean, jostailu-egileak eraman ditzan onartuko du, baina orduan panpinen mekanismoak funtzionatzeko giltza desagertu egin dela konturatuko dira. Paul eta Pauline geldi ikusita, jostailu-egilea oso goibel jarriko da, eta abesti bat eskainiko die. Orduan, jostailuak bizidun bilakatuko dira denak hartzen dituen maitasunik garbi eta benetakoena sentitzean. Azkenean, Aldo Fiascok eta jostailu-egileak, norberaren akatsak onartuta, bat egingo dute feriaz feria joateko eta hurbildu nahi duten haur guztiei panpinen dohainak erakusteko.

Pertsonaiak

Opera honetako pertsonaia bakoitzak tratamendu desberdin eta konplexu bat du.

Jostailu-egilea: Bere ezaugarria xalotasuna da. Hurren lañotasun bereizgarri hau nabarmentzeko, jostailu-egilearen mugimenduak apur bat baldarrak dira, erdi haurra, erdi agurea, haur batek bezala dantzatzen du, ume batek bezala pentsatzen du, ume

baten moduan beldurtzen da. Ez du arriskua ikusten eta beti heltzen dio besteen zintzotasunari. Bata bat soinean zuriz jantzita egoteak gehiago laguntzen du eskola-ume xalo itxura hau ardazten. Bere mugimenduak motzak eta traketsak dira.

Aldo Fiasco: Jostailu-egilearen kontrakoa da. Azpikeria, azerikeria, zekenkeria irudikatzen ditu. Bukaeran bakarrik askatuko da, eta zintzoa denak gauzak alda ditzakeela ulertuko du. Beltzez doa jantzita, are gehiago nabarmentzeko bere maltzurkeria. Aztia izateak beste suspense osagai bat eransten du, beti baitago zalantza noraino hel daitekeen bere magia. Bere mugimenduak irmoak eta luzeak dira.

Paul: Panpina mutila. Ez da abenturazalea. Helduegia, bere aita maite du, eta ikuskizunaren korapiloa askatuko du maitasuna obraren ardatz gisa sartuta. Paulek formalismoa eta immobilismoa irudikatzen ditu; punketik hurbil dagoen bere itxura estetikoak ez du zerikusirik bere barneko itxurarekin, diziplinatua eta obedienteza baita. Bere mugimenduak panpina artikulatu batenak dira. Bizidun bihurtzen denean, haur bat da.

Pauline: Ameslaria eta askea. Abentura eta askatasuna irudikatzen ditu. Bere mugimenduak mekanikoak eta eztiak dira. Dantzaria da, eta ballet-pausoak dantzatzen ditu.

Fitxa Artistikoa

Musika eta libretoa:	Seymour Barab
Libretoaren egokitzapena:	Pablo Valdés
Musika-zuzendaritza:	Juan Luis Martínez
Eszena-zuzendaritza:	Pablo Ramos
Eszenografia:	Raúl Arraiza
Argiak:	Koldo Taínta
Jantziak:	Eduarne Ibáñez
Produkzioa:	OLBE- ABAO Nafarroako Ganbera-Opera

Jostailu-egilea (Baritonoa):	Gexan Etxabe
Aldo Fiasco (baxu-baritonoa):	Mikel Zabala
Pauline (Sopranoa):	Abenaguara Graffigna
Paul (Tenorea):	Jorge Juan Morata
Panpinak:	Nafarroako Ganbera Operako haurren korua eta opera eskola

Orkestra

Goya Orkestra Sinfonikoa

Eszena

Toy Shop operan panpina-egile baten mundu berezia agertzen da; panpinaz beteriko espazio fisiko batean bizi da, baina bere espazio emozionala ere berak egindako panpinek betetzen dute, eta zoriontsua da haur-mundu horretan. Mundu berezi hau planteatzeko, panpinak eta gailu mekanikoak dira erreferente nagusia.

Jostailu-egilearen mundua oso espazio berezia da, bertan dena da posible. Eszenaren planteamendua mundu irreal baten aldeko apustua da, eta, aldi berean, haurren irudimenaren erreferentea da. Jostailu-egilearen eta bere sorkuntzen mundu berezia. Hasieratik, mundu hori espazio desberdin baten moduan planteatu da, estatikoa izan barik. Harrizera eraman gaitzakeen mundu berezi bat.

Agertokia jostailu-egilearen tailerra da. Bere sorkuntzez beteriko gunea. Aparteko mundu batean bizi diren panpinak, dohain berezi bat dutenak: bizidun bihurtzen dira.

Agertokia lantoki baten moduan dago eratuta. Oraindik magian eta betikotasunean sinesten duen jostailu-egile baten tailerra. Ehunka sorkuntza mekanikoz beteriko gunea, mundu mutu eta isila osatzen dutenak gizakiak agertzean eta jolas eta alaitasun grinarekin bizi direnak bakarrik geratzen direnean.

Agertokian sei metro baino gehiagoko garaiera duen panpina bat da nagusi, jostailu-egile honen amaitu gabeko obra, bere panpina maiteenei, Paul eta Paulineri, oparitu nahi ziena.

Eurak bereziak dira. Dantza egiten dakite, baina bakarrak bihurtzen dituen modu bitxi batean: elkarrekin erritmoari jarraiki. Paul eta Pauline jostailu-egileak izan ez dituen seme-alabak bezalakoak dira. Bera eurekin mintzatzen da, eta panpinak barik gizakiak balira bezala tratatzen ditu.

Pailazo handia, bukatu gabeko aparteko tamainarekin, panpinen hotel bihurtu da. Bere barruan bizi dira tailerreko gainerako bizilagunak.

Jostailu-egilea gizon zoriontsua da paradisu honetan. Eta errealitatetik urrun bizi da. Tailerra egiteko orduan, argi genituen hainbat gauza:

1.- Dinamika aldaketak izango zituen gunea izan behar zuela: mugimendu limurtzaileenetik gelditasun isilenera igaro. Giro hau haur panpinek eta beren mugimenduek eragingo dute.

2.- Gune osoak giro irreal magiko eta misteriotsua izan beharko lukeela. Ahoan jarritako gasak emango dio itxura hau, baita gasa honen gainean jarritako irudiek ere; argiek eta atzeko marrazturiko gasak efektu hauek sortzen laguntzen dute.

3.- Denak izan behar zuela itxura ludikoa. Hori lortzeko, aparatu mekanikoak erabili dira, urrunetik mugituak gailu elektronikoen bidez.



Eszena zuzendaritza: Pablo Ramos

Pablo aktore hasi zen arte eszenikoen munduan, eta berehala sartu zen beste esparru batzuetan, zuzendaritza-laguntzaile, kasu. 90eko hamarkada hasieran, antzerki klasikoa zuzentzen hasi zen eta Operaren Lagunen Gayarre Elkartearen opera-produkzioen zuzendaritzan lagundu zuen.

Egun, bide berriak ikertzen ari da musika garaikidearen barruan, eta formatu handiko eszena-proposamenak eta performanceak egin ditu Alacanteko Musika Garaikidearen Jaialdian edo Instrumentu Bakarren Jaialdian Buenos Airesen.

Nafarroako Ganbera-Operaren sortzailea, honako operetako eszenak zuzendu ditu: *Hamelingo txirularia*, *Enperadorearen jantzi berria*, *Ali Baba eta berrogei lapurrak* eta *Ipuinen jagolea*, guztiak ABAO TXIKIren denboraldietan eskainiak.



Eszenografia: Raúl Arraiza

Muralak eta kartelak marrazten hasi nintzen; pixkanaka dekorazio eta artisautzarekin lotutako beste arlo batzuei heldu diet, hainbat material landuta, esaterako, zura, burdina, erretxinak, beira, zementuak, zeramika, oihalak... Eta argazkilaritza eta diseinu grafikoarekin batera arituta...

Egun, sormenezko konponbide ugari eskain dezaket, modu pertsonal eta eksklusiboan garatuta edozein negozio motatarako, edo etxerako, bai xehetasunik txikienei dagokienez, esaterako, bisita-txartelak, logotipo bat, edalontzi-azpiko bat, komunerako kartel txo bat..., bai lokal baten dekorazio osoa egiteko, obra berrikoa zein eraberritzekoa. Nire lehenbiziko eszenografia *Ipuinen Jagolea* operarako egin nuen, ABAO-OLBE eta Nafarroako Ganbera-Operaren koprodukzioa izan zena.

Musika

Toyshopeko musika soila, melodikoa eta deskribatzailea da. Seymour Barabek istorioaren zerbitzura jarri du bere musika eta, horrela, protagonisten aldarte desberdinetara eramaten gaitu: alaitasunera, umorera, misteriora, magiara... Operak obertura, ariak, duoak, elkarrizketa txikiak... ditu, beraz, musika mota honetan hasi berria den ikusleak opera baten egitura osoa ezagutu eta gozatu ahal izango du.

Haurrentzat bereziki konposaturiko opera bat denez, musikak "marrazki bizidunetan" agertu ohi den hizkuntzaren antzeko batera eramaten gaitu, doinu-ildoek protagonisten emozioak eta ekintzak babestuta.



Konpositorea: Seymour Barab

Seymour Barab Chicagon jaio zen, Illinoisen, 1921ean, eta bere ibilbide profesionalari elizako organista ekin zion hamahiru urterekin. Beranduago, orkestrako txelo-jole bihurtu zen eta ikasketak bukatutakoan Indianapoliseko Orkestra Sinfonikoan sartu zen. Bere ibilbidean herrialde osoko orkestra nagusiekin jo du, Cleveland, San Frantzisko eta Filadelfiakoan, kasu.

Barab beti egon zen musika garaikideak oso interesatuta; horrek konpositore amerikarrek harreman estua izatera eraman zuen, eta haien musika derrigorrezko bigarren hezkuntzan zegoela hasi zen jotzen.

Chicagotik irten aurretik, Laukote Berriaren sortzaileetako bat izan zen, eta gero New Yorken Columbiako Unibertsitateko Laukoteko konpositore egoiliarra bihurtu zen, helburu nagusia musika garaikidea sustatzea zuena. Barabek New York Pro Musica sortzen lagundu zuen, obra errenazentistak eta musika barrokoa jotzen hasi zen lehen talde garaikideetariko bat. Rutgerseko Unibertsitateko, Negro Mountain Collegeko eta New

England Conservatory of Musiceko kide izan da, nahiz eta konposizioari dagokionez autodidakta izan den nagusiki.

Bigarren Mundu Gerra ondoren, urtebete geratu zen Parisen eta bertan musika konposatzeko bere talentua lantzen aritu zen. Urte hartan berrehun abesti baino gehiago sortu zituen.

Honela, ahozko musikaren gaineko interesa piztu zitzaion, eta musika-adierazpen modurik gustukoena bihurtuko zen berarentzat. Barab oso emankorra da. 88-89 denboraldian zehar, konpositore honek Estatu Batuetan eskainitako operaren zatirik handiena egin zuen. "Gure garaiko Rossini" ere deitu izan zaio. Bere "Little Red Riding Hood,

Txanogorritxo" izan zen Txinan egindako lehen opera amerikarra herrialde horren aldi isolazionista ostean.

Jostailuen Denda, New York City Operak eskatuta, Kennedy Zentroan estreinatu zen Washingtonen, eta 1998an, Hamelingo Txirulariko eszenak ere bertan egin ziren.

Operaren Elkarte Nazionalak saria eman dio bere ibilbideagatik.

Jantziak

Jantziak eta eszenografia eskutik doaz eta jostailuen mundu magikora eramaten gaituzte.



Edurne Ibañezek diseinatuak eta ekoiztuak, Toyshopeko jantziek fantasia eta abangoardiak uztartzen dituzte, koloretako ibilbidea osatuta, ñabardurak izugarri zainduta, eta joskintza-bilduma baten sorkuntza-prozesua iradokituta.

Materialak eta ezarkinak, jatorri noblekoak zein zetak, lihoa, damaskoak eta larrua, material birziklatu edo industrialekin batera agertzen dira jantzietan, esaterako, erradiografiak, bridak, laten eraztunak, puxikak, ispiluak eta kautxua.

Jantzien lineak beren pertsonaiekin batera dabilta ametsetan.

Pauline dantzari dotorea da, kutsu frantsesarekin, beltzez jantzita eta ipurterrea, metalezko ezarkinekin, erradiografia eta ispiluarekin.

Paul soldadutxo punka da, xix. mendeko linea ingelesekin.

Jostailu-egilea, tresnez beteta, zuri eta grisez jantzia, tanto beltzak dituen eskularru arrosaz eta plataformekin.

Aldo Fiascori harrokeria dario bere kapa handiarekin eta txoriz jositako larruzko kapela garaiarekin.




Aldo Fiasco



Juguetero



Paulinne



Paul

Jostailu bizidunez beteriko tailer batean, dantzari zintzilikari bat aurkitzen dugu gozoki kolorez, neskatala bihotz bat distira gorriekin, jakan zetazko hartz peluxeak daramatzen majorette bat, koloretako tirez beteriko arlekin ero bat eta behizain eta robot bat kautxuzko ezarkinekin...